




## 2018KO UZTAILEKO PRESBIDEKO BERRIKUNTZAK

### PRESBIDE. ESPEZIALITATEA ETA PROFIL PROFESIONALAK

Presbideko pantaila nagusian profesional bakoitzak SAPen duen espezialitatea sartu da, espezialitate horretarako dago kontratatua Presbiden sartzen den profesionala.

Oraingoz informazio hau informatzailea soilik da, baina geroago beste funtzionaltasun batzuetarako kontuan hartu ahal izango da.

Espezialitatea profesionalaren datuen ondoan ikusten da, eta ikono baten bidez bereizten dira profilak: medikuntza, erizaintza edo farmazia.



Uztailean kargatu den bertsioan Osakidetzako profesional sanitarioentzat bakarrik agertzen da espezialitatea, mediku egoiliarak, barne. Laster beste profesional batzuk sartuko dira, hala nola, zentro soziosanitarioetan edo ikuskatzailletza medikoetan lan egiten dutenak.

Profesionalen batek inolako espezialitaterik kargatuta ez badauka, edo oker kargatuta badauka jakinarazi Osakidetzako CAUko postara:  
[cau24x7@osakidetza.eus](mailto:cau24x7@osakidetza.eus)

Orain, espezialitatea alor informatiboa besterik ez da, Presbiden erabiltzen uzten duen funtzionaltasunetan eraginik ez daukana.

Hilabete batzuetan zehar informazio hori baliozkotu egingo da. Ondoren baloratuko da aldaketak egitea eta profil profesionalak espezialitateen arabera egokitzea. Adibidez: Presbidek baimendu lezake medikamentu jakin batzuen preskripzioa (oso garrantzitsua da bisa behar duten medikamentuen kasuan finantzatu ahal izateko).